


ETORKINAK BERGARAN

2005eko Txostena



BERGARAKO UDALA



BERGARAKO UDALA
Gizarte Ongizate Saila



BERGARAKO UDALA
Gizarte Ongizate Saila

ETORKINAK BERGARAN, 2005eko Txostena

Egilea:

Ion López Santamaría
Gizarte Ongizate Saila

Bukaera data:

2005eko iraila

BERGARAKO IMMIGRAZIOAREN DATUAK

AURKIBIDEA

SARRERA	4
GENEROAREN ARABERA	5
ETORKINAK JATORRIAREN ARABERA:	
- Herrialdeka.....	6
GENEROA ETA JATORRIA KONTUAN HARTUTA:	
- Herrialde bakoitzeko gizon-emakumeak.....	7
BIZILEKUAREN ARABERA BANATUTA:	
- Bizi diren kale eta auzoen arabera banatuta.....	8
ADINAREN ARABERA BANATUTA	9
ADIN ETA SEXUAREN ARABERA BANATUTA	10
ETORKINAK KONTINENTE JATORRIAREN ARABERA	11
ONDORIOAK	12

SARRERA

Txosten hau 2004. urtean Bergarako etorkinen egoeraren inguruan osatu zen ikerketan sakontzeko, eta orduko datuak eguneratzeko, helburuarekin burutu da.


Azken urte honetako datu orokorrak kontuan hartuta, Bergarako udal erroldan, emigrazioagatik 98 baja eta immigrazioagatik 224 alta eman dira.

Dirudienez, biztanle erroldan azken urteetako joera aldatu egin da, eta une honetan, biztanleriaren joera positibo baten aurrean aurkitzen gara. Hori bai, 224 pertsona horietatik 91 estatu espainiar kanpotik etorritakoak dira. Hau da, urtebete honetan etorritakoen %41 beste herrialde baten jaiotakoa da, esanguratsua eta kontuan hartzekoa benetan.

2005 urte hau berezia izan dela aipatu behar da, urteko lehenengo hilabeteetan zehar etorkinen erregularizazio prozesua izan delako, eta ohi baino pertsona mugimendu gehiago egon delako.

Azkenik, gehitu behar da txosten honetan aipatutako datu guztiak Bergarako biztanleen udal erroldan soilik oinarrituta daudela.

GENEROAREN ARABERA




Bergaran, 2005eko maiatzean, 552 etorkin ditugu erroldaturik, iaz baino 91 pertsona gehiago (2004ko maiatzean 461 etorkin genituen erroldatuta). Beraz, etorkinen kopuru totala urtebetean %17 igo da.

Aurten etorritako 91 pertsona horietatik 39 emakumezkoak dira eta 52 gizonezkoak. Kopuru horien arabera, emakume eta gizon kopuruen arteko ehunekoak berdin mantentzen dira, eta aurtengo erlazioa iazkoaren berdina da: etorkinen kopuru osoaren % 44 emakumezkoak dira eta % 56 gizonezkoak.

Dena den, etorkinen egoeraren erregularizazio prozesua eman denez, eta aurten urte apur bat berezia izan denez, posible da jende kopuru bat aurretik Bergaran bizi zena, baina erroldatzeke zegoena, orain erroldatu izana.

ETORKINAK JATORRIAREN ARABERA

HERRIALDEKA



Kopuru orokorrak


Jatorrizko herrialdeei dagokienez, Pakistan da oraindik ere etorkin gehien aportatzen duen herrialdea (104). Pakistandarren kopurua urtebetean %31 igo da (72tik 104ra), hau da, batez besteko orokorraren ia bikoitza. Hala ere, portzentaian gehien igo den herrialdea Bolivia izan da, %56 igo baita (25etik 58ra). Gainera, une honetan, Bolivia biztanle gehien aportatzen duen hirugarren herria izatera pasatu da, Marokori aurrea hartuz.

Beraz, gaur egun Bergaran dauden etorkin gehienak herrialde hauetakoak dira: Pakistan (%19), Portugal (%13), Bolivia (%11), Maroko (%10), Kolonbia (%6) eta Bulgaria (%5).

Aurten etorritakoak

Lehen aipatu dugun bezala, urtebetean 91 pertsona berri etorri dira. Horietatik 33 Boliviarrak izan dira (etorritakoen % 36) eta Pakistandarrak 30 (etorritakoen % 32). Herrialde bien artean aurten etorritakoen % 68 osatzen dute.


GENEROA ETA JATORRIA KONTUAN HARTUTA



Generoa eta herrialdea kontuan hartzen baditugu hurrengo nabarmendu dezakegu:

- Bi herrialdetako (Pakistan eta Bolivia) etorkinen kopuruak, generoari dagokionez, erabat desorekatuak daudela:
 - 104 pakistandarretatik 102 gizonetzkoak dira (gizonetzkoak %99 dira).
 - 58 boliviarrretatik 48 emakumeak (emakumezkoak %82 dira). Gainera, dauden 10 gizonetzko horietako batzuk haurrak dira.
- Beste herrialde gehienak nahiko orekatuak daudela emakume eta gizon arteko kopuruetan.


BIZILEKUAREN ARABERA



Herrian etorkinen bizilekuari dagokionez, joerak berdin jarraitzen du; hori dela eta, nagusiki herriko gune batean kokatzen dira: Zubiaurre- San Antonio - Martoko inguruan hain zuzen ere.

Horretaz aparte, Zubieta Kaleko eta Osintxu Auzoko inguruetan dagoen etorkin kontzentrazioa ere aipagarria da.


ADINAREN ARABERA BANATUA



Grafikoari erreparatuz, erraz antzeman daiteke etorkinen gehiengoa ernaltzeko adinean dagoela.

Momentu honetan 235 pertsona dira 20 eta 40 arteko adin-tartean daudenak, hau da, etorkinen kopuru osoaren %43 haurrak ekartzeko adinean dago, kontuan hartzekoa.


ADINA ETA SEXUAREN ARABERA BANATUTA



Etorkinen populazioaren piramideari erreparatuz zenbait xehetasun aipatu daitezke:

- Emakumeen populazioa, adinaren arabera, orekatuta dago, hau da, ez dago bereziki jendez gainezka dagoen adin tarterik.
- Gizonezkoena ordea ez. Gizonen kopuru handi bat 25 eta 40 arteko adin-tartean kokatzen da, tarte horretan dauden emakumeen kopuruak bikoiztuz.
- Orain arteko taula guztiak uztartuz, beste datu berri bat gehitu behar da:
 - 25-40 urte tarte horretako gizon gehienak pakistandarrak direla.

KONTINENTEAREN ARABERA



2005. urte honetan, nagusiki, Amerika eta Asiako emigrazioek egin dute gora. Europa eta Afrikatik datozenak, aldiz, lehengo ehunekoetan edo baxuagoetan mantentzen dira. Hori dela eta, gaur egun, Bergarako etorkinen kolektiboaren barruan Afrikako etorkinak gutxiengoa bihurtu direla nabarmendu daiteke.

ONDORIOAK

Hasteko aipatu, Bergarak aurten 14.930 pertsona inguruko biztanleria duenez, etorkinek dagoeneko Bergarako biztanleriaren %3,7 inguru osatzen dutela.

Datuen arabera, urtebetean etorkinen kopurua %17 igo da, 91 pertsona, horietatik heren bat pakistandarrak (denak gizonak) eta beste heren bat boliviarrak (denak emakumeak) izan dira. Une honetan, bata zein bestea, Bergarako bi komunitate inportanteenak bihurtu direla azpimarratu behar da.

Populazioaren piramideari (adina eta sexua) erreparatuz gero, berriz, etorkinen gehiengoa haurrak ekartzeko adinean dagoela ikusten da, 235 pertsona daude 20-40 adin tartean, hau da, etorkin kopuru osoaren %43. Hori dela eta, epe motzean, etorkinen kolektiboaren jaiotza tasak gora egin dezakeela nabarmendu beharra dago. Hala ere, populazio honetako gizonen eta emakumeen arteko orekarik ez dagoenez, eta gainera poloak daudenez (pakistandarrak gizonezkoen %33 dira eta Boliviarrak emakumezkoen %20), agian familiak osatzeko arazoren bat egon daitekeela aurreikusi daiteke.

Boliviarrak emakume batzuek euren gizona dute Bolivian, eta hor, agian, gizonak etorri eta familia bilkurak emango dira. Gizon pakistandarrak, berriz, oso gazteak dira, eta ziurrenik, bikotea hemen aurkitu beharko dute. Hala ere, oso kopuru handia direnez, ez dute erraz izango. Beste herrialdeetako etorkinekin ez dago zentzu honetako arazo berezirik aurreikusterik.

Bestalde, azken urte honetako etorreraren joera, nagusiki, Asia eta Hegoamerikakoa izan dela nabarmendu behar da. Bergaran Afrikako etorkinak gutxiengoa bihurtu direlarik.

Kezkatzeko datu bat ere aipatu beharra dago: etorkinen kontzentrazioa ematen ari dela herriko gune jakin batzuetan, gune horiek ghetto bihurtzeko arriskuarekin.

Herriaren ikuspuntua osatzeko helburuarekin, Gizarte Zerbitzuetako dirulaguntzak jasotzen dituztenen artean, une honetan, %16 inguru etorkinak direla esan behar da. Momentuz, datu honek ez dirudi oso kezagarria, hala ere, etorkizunean kontuan izateko faktorea izango da.